



Beñat Gaztelumendi
Bertsolaria

Normaltasuna

Bat-batean lehertu da udaberria. Pantailaz bestaldera zantzu batzuk sumatu uste nituen, baina gaur aste-bete jabetu nintzen benetan, lore-hautsa zerutik lurre-ra kamera geldian jausten ikusi nuenean. Sudur-zuloetako azkurak doministiku bihurtu ziren berehala; begietako erremina eta aurpegiko azalpeko hoditeria trabatuetan pilatutako zikinek sortutako laino sentiazioa; munduaren eta nire artean kristal lodi bat jarri dutenaren susmoa.

Normala zela pentsatu nuen: sei aste etxean ezkutatuta egonda nire gorputza ahaztua zegoela munduko mehatxuekin. Babes sistema itzalita atera nintzela kalera eta inoiz ez be-

zala erreakzionatu zutela nire alergia ahaztuek, grabitate gabe ibiltzera ohitutako astronauten hankak berriz lurra zanpatzean okertzen diren gisan.

Normala zela pentsatu nuen, “normala” hitzaren aurka errebelatu nintzen arte. Honen aurretik ezer ez zen normala eta orain are gutxiago. Normaltasunaren pean zenbat zapalkuntza eta injustizia ezkutatu ote dira, alfonbra lodi baten azpian hondakinak gordetzen diren modu berean; “normala da” esanaz, “beti izan da hala eta beti izango da”, “normala” dela dioenak erabakime-nik ez balu bezala.

Udaberria bat-batean lehertu zait gorputzean eta ez daukat egonarririk, urduri nabil etxeko txoko

batetik bestera, hamar pausu bat bestearen atzetik luzatu ezinda, erretxinduta, amorratuta. Leiho ertzetik kukuka nabil; bizilagun balkoidunekin haserretzen naiz; ze eskubide ote daukate eguzkipean nik baino azalera handiagoa edukitzeko.

Kalean dabiltzanek barrenak inarosten dizkirate nire leiho erdi itxiaren kontra kizkurtuta, trikuak bezala nire arantzetan bilduta, nire amorraren errua norbaiti leporatzeko premia.

Etxean sartuta eta nire gorputzean kabituta ezinda. Estatistikak irentsi egin ditut egunez egun; albisteak oldean etorri zaizkit eta olatu baten zurrumbiloan banengo bezala sentitzen ditut zenbakiak ni inguratzen, ni arearen kontra jaurtitzen, ni itozten. Zenbakiak sudur-zuloetan, zenbakiak eztarrian, zenbakiak biriketetan. Ez naiz irentsitakoa digeritzeko gai; zenbat eta gehiago etorri gutxiago jasotzen dut.

Azalpen bila nabil, “bizitzea” esaten diogun ibili horren konpasaren bila. Neurriei buruz hitz egiten ditate, eta bizitzeak neurriei talka egiten duela erantzuten diet, neurriak puskatzea dela bizitzea: sustraiek pitzatutako asfalto zatiak eta huntzak jandako horma-pinturak. Hori da “bizitzea”.

Ez dakit niri dagozkidan erabakiak nork hartzen dituen. Pantailaz bestaldeko politikariei oihuka ari naiz, egunkarietako adituei garra-sika, leihopeko poliziei biraoka. Inork ez nau ikusten ordea. Kateko zakurrak adina erabakimen daukat: jabeak nahieran askatzen eta lotzen nau eta martxoak alde egin dit, apirilik ez da etorri eta maiatzak alergia eragin dit. •



«Kalean dabiltzanek barrenak inarosten dizkirate...».

Marisol RAMÍREZ | FOKU